

DIRU-ITURRIAK

Diru- sarrerak enpresa batean sartzen den dirua da. Gure kasuan, gure proiektuaren diru sarrerak antolatutako ekintzen inskripzioetatik lortutako dirua eta herritarrek bolondreski egindako ekarpenetatik lortutakoa da.

Aurreikusitako datuak ondorengoak dira:

Cani cross lasterketen inskripzioak :

CaniCross izeneko lasterketan gutxi gorabehera, 25 txakurrek parte hartzea espero dugu, eta lasterketa honetan parte hartzeko, jabe bakoitzak 15€ (inskripzioaren balioa, segurua barne) ordainduz, 375€ lortzen ditugu. (375€)

Herritarren/enpresen aportazioak:

Markatutako urteko zenbait egunetan, Arabako herri garrantzitsuenetan jarriko ditugun postuekin lortzen dugun dirua da. Hasiera batean, 5 herrietan egotea espero dugu:

- Gasteiz: gutxi gorabehera, 100 pertsonak 3€-ko donazioa egiten, 300€ lortzen ditugu eta hori urteko zehaztutako 3 egunetan eginda, 900€ elkartuko genituzke.
- Agurain: gutxi gorabehera, 40 pertsonak 3€-ko donazioa egiten, 120€ lortzen ditugu eta urtean 3 alditan eginda, 660€ lortuko genituzke.
- Amurrio: gutxi gorabehera, 30 pertsonak 3€-ko donazioa eginez, 90€ lortzen ditugu eta hori urteko zehaztutako 3 egunetan eginda, 270€ eskuratuko genituzke.
- Labastida: gutxi gorabehera, 10 pertsonak 3€-ko donazioa egiten, 30€ lortzen ditugu eta hori urteko zehaztutako 3 egunetan eginda, 90€-ko donazioa izango genuke.

- Murgia: gutxi gorabehera, 20 pertsonak 3€-ko donazioa egiten, 60€ lortzen ditugu eta hori urteko zehaztutako 3 egunetan eginda, 180€ elkartuko genituzke.

Guztira beraz, **2475€** lortuko ditugu herritarren ekarpenekin.

Futbol txapelketa:

Urtero behin egiten dugun txakurren futbol torneo bat da. Honetan parte hartzeko, jabe bakoitzak 10€ (inskripzioa eta segurua) ordaindu behar ditu eta guztira, 20 txakurrek parte hartzea espero dugu. Horrela, 200€ lortuko genituzke. (200€)

Frisbee txapelketa:

Urtarrilaren lehenengo asteburuan, urtero frisbee txapelketa bat egiten dugu Gasteizen. 30 txakurrek parte hartzea espero dugu eta apuntatzeko 6€ (inskripzioa eta segurua) ordaindu beharko lirateke; orduan, 180€ lortuko genituzke. (180€)

Emaitza guztiak batuz, **2.855 euroko** diru sarrerak lortuko genituzke.

Ekintza guzti hauen helburua, dirua lortze da, ondoren txakurtegiarako materiala erosteko diberatua izango dena. Geroz eta diru sarrera handiagoa izan, orduan eta ondasun gehiago eskeini ahalko genituzke gure bezero diren bi txakurtegiara.

